



BALKOIAK ETA LEIHOAK APAINTZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Debako Udalak Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa iragarri nahi du.

HELBURUA

Herriko balkoiak eta leihoak loreekin apainduz, herriari itxura atseginagoa ematen dioten bizilagunak saritzea, eta bidenabar, ohitura hori herritarren artean zabaltzea. Helburua ez da lehiaketa egitea, herritarren interesa eta ahalegina saritzea baizik.

PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten debar guztiek parte hartu dezakete, izena emanaz.

IZENA EMATEA

Izena emateko bi aukera daude:

- Apirilaren 24tik maiatzaren 15era, Turismo bulegoan
- Apirilaren 24an, Foruen plazan izango den "FurgoBaratzan" (10:00-13:00).

Etxebizitza bakoitzeko lore bakarra banatuko da, amaitu arte. Lorea jasotzeko edota lehiaketan izena emateko nahitaezkoa da inprimakia beteta entregatzea.

OINARRIAK

- Balkoi edo leiho dotoreena sarituko da; horretarako, landare edo lore biziak erabiliko dira apaingarri gisa, eta epaimahaiak horiek kaletik ikusteko aukera izan beharko du.
- Parte-hartzaileek balkoi eta leihoak nahi bezala apaindu ahal izango dituzte, beti ere, ingurua errespetatuz (auzokideak, kalea...) eta segurtasuna bermatuz.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia Kimu Bat enpresako eta udaleko ordezkari batek osatuko dute, **uztail inguruan**, balkoietan eta leihoetan jarritako loreak eta landareak ikusi, eta lore apainketa ederrenak sarituko ditu.

BALORATUKO DIRA:

- Konposizioaren originaltasuna eta sormena.
- Apainketaren kalitatea.
- Apainketaren harmonia eta diseinua.
- Konplexutasuna.

SARIAK

2 sari mota egongo dira:

- **Herrian:** 150 euroko bi bono Debalai elkarteko saltokietan gastatzeko.
- **Eskualdean:** 200 euroko bonoa, irabazlearen herriko saltoki elkartuetan gastatzeko.

Uztailean jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia, eta sari banaketa ere hilabete horretan egingo da. Parte-hartzaileei aurretik noiz eta non ospatuko den abisatuko zaie.

KONPROMISOA

Udala telefonoz harremanetan jarriko da irabazleekin, eta irabazleen izenak Debako webgunean argitaratuko ditu: www.deba.eus.

Parte-hartzaileek baimena emango dute balkoiei eta leihoiei argazkiak ateratzeko eta argazki horiek zabaltzeko.

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, arestiko oinarriak onartu beharko dira.